

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### **Deialdi publikoa, bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko**

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak onartu duelarik udalerrri honetako bake epaile titularren dimisioa, bat etorri Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. eta hurrengo artikuluetan eta ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak, bake epaileenak, xedatutakoarekin, udalbatza honek bake epaile titularra eta ordezkoa hautatu behar ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren gobernu aretoari proposatu. Deialdi publikoa iragartzen da kargu horiek betetzeko.

Botere Judizialaren Lege Organikoak epaile karreran sartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunek, bake epailearen kargua betetzeko ezarritako mugak kontuan hartuta eta eginkizun horretan aritzeko ezgaitasun eta bateraezintasun arrazoiek eragiten ez badiete, eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, beren inguruabar pertsonalekin, udal idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, hogeita hamar egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2016ko urriaren 26a

*Alkatea*

*JAVIER URIARTE JAIRO*